



Antso sagardogilea eta Manoli Sorondo, azken edizioko sagardo eta tartarik onenak

“Zuria, gure erara” ikuskizuna Saroben, urtarrilaren 16tik 18ra

Egape dantza taldearen ikuskizun berriaren estreinaldia, Anabasa musika taldearekin eta Jon Unanue aktorearekin.

Dantza ikuskizuna izango da, musika zuzenean duena eta hori indartzeko, aktorearen ekarpenak ere edukiko dituen. Horixe da ideiarekin sustatzaileek Aiurri aurreratu diotena.

Orain dela bederatzirte antzerki dinamika abiatu zuten Urnietan eta hiru fruitu eman zituen: *Marizulo*, *Urnietan* 59 eta 1936. Hiru emanaldi horien oinarri garrantzitsuena dantza zen; Egape dantza taldeak eta Edu Muruamendiarek egindako dantzak, hain justu. Hirugarrena amaitutakoan, Egapeko dantzariak emanaldi bat prestatzen laguntzeko eskatu zieten eta hortik sortu da ikusizun berria. Dena den, ez da antzerki taldearen jarraipena izango. Argi utzi nahi dute, aipatu hiru emanaldietan aritutako kideak berriro arituko diren arren, ez dela laugarren emanaldia izango;



Eguberrietan burubelarri aritu dira ikuskizuna prestatzen.

dantza mundutik abiatu den dinamika berria delako. Urnietan hiru saio egingo dituzte urtarrilaren 16tik 18ra, bata etxekoei zuzendua eta beste biak herritar guztiei irekita. Dantza ikuskizuna izan arren, dantzaren zale amorratuak ez direnentzat ere entretenigarria

izango da, ikuskizuna osatzen duten elementu asko egongo direlako. Estreinaldia Saroben izango da, baina aurrerantzean eskualdean saio gehiago egitea gustatuko litzaieke.

Eguberrietan entsegu ugari egin dituzte, saioa borobiltzeko. [URNIETA, 3. ORRIALDEA]

EMANALDIAK SAROBEN

Urtarrilak 16, ostirala. 20:00.

Familia eta gonbidatuentzat.

Urtarrilak 17, larunbata. 19:00.


4 euro.

Urtarrilak 18, igandea. 19:00.

4 euro.

Sarrerak urtarrilaren 12tik aurrera salgai jarriko dituzte, Saroben.

Andoaingo historiari buruzko erakusketa



Basteron ikusgai dago honezkeroko mendeurrenari buruz Udalak antolatu duen erakusketa.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Eguberriak irudi bidez



Abenduaren 23an hasi eta urtarrilaren 5a bitarte hitzordu ugari izan da Andoainen eta Urnietan.

[ESKUALDEA, 8-9. ORRIALDEAK]

Parte hartze prozesu berria abiatuko dute Andoainen, datorren astean



Ana Carrere Andoaingo alkatea eta Pedro Unanue zinegotzia.

Datorren astean auzoz auzoko parte hartze prozesu berria abiatuko da Andoainen, Udalak 2013 eta 2014 urteetan egindako ekimenen berri eman, alde batera utzitakoen arrazioa azaldu eta egungo egoera ekonomikoaz hitz egiteko. 2012. urte amaieran herritarren beharrak eta ekarpenak jasotzeko partaidetza prozesua jarri zuten martxan. Bertan, lehentasunak markatu eta denetarik eskakerak egin zituz-

ten auzokideek: uraren kalitatea hobetzea, txakur kaken afera konpontzea, kaleko garbiketa hobetzea, komertzio txikiak bultzatzea, euskara sustatzea...

Ana Carrere alkatearen ustez, balorazioa egiteko unea da: “Azaldu nahi dugu hartutako konpromezuetatik zein bete ditugun, zeintzu ez eta zergatik”. Bilerak urtarrilaren 14an abiatuko dira.

[ANDOAIN, 6. ORRIALDEA]

“Now”, Bilbora



Larunbatean manifestaziora joateko dei egin dute bi herrietan. Urnietatik autobusa 15:15etan abiatuko da. Izena emateko: Xauxar, Kantoi eta Amailur.

OSPAKIZUNA OHITURA BILAKATU DA IÑISTORRA EUSKALTZALEEN ELKARTEAREN LANARI ESKER

San Tomas eguna orain arteko jendetsuena

Antolatzaileen aurreikuspenak bete ez ezik, guztiz gaintitu ziren. San Juan plazaren arkupeetan antolatutako ospakizunera ehunka herrikide hurbildu zen, inoizko azoka jendetsuena izanik. Sagardoa,

txistorra eta gaztainak agortu ziren. Antolatzaileak gehiago eskaini ezinik geratu ziren. Festatxoa dagoeneko ohitura bilakatu da Urnietan, eta asteburuarekin bat eginez gero, jendetza biltzen da.

Iñistorra euskaltzaileen biltzarreko kideak pozarren egon daitezke San Tomas egunaren harira sortu duten ohiturarekin. Dagoeneko tradizio bilakatzen ari baita. Aurten igandea izanik lanez lepo ibili ziren.

Azoka datu bidez:

Santomasetan kontsumitutakoa ospakizunak izan zuen arrakasta aztertzeko neurgailu egokia da.

- Sagardo botilak: 180.
- Ardo botilak: 25.
- Txistorra: 30 kilo.
- Gaztainak: 25 kilo.
- Taloak: Txartelak.

Sagardo txapelketa:

Hamar sagardogile aurkeztu ziren. Epaimahaia: Mikel Izagirre, Joxemari Iturbe, Txema Gonzalez, Lourdes Urruzola, Aingeru Altuna eta Lupe Urri-za.

Irabazlea: Antso baserria, (Domingo Mitxelena).

Bigarren: Errotaburu baserria, (Sebastian Eraunzetamurgil).

Hirugarren: Sorozabal baserria, (Juan Peñagarikano).

Sagardoaren enkantea:

Irabazlearen botila 2 eurotan abiatu zen, 8ra iritsi arte. Diru kopuru hori ordainduta eramaneen Patxi Pagolak. Enkantea urtez urte:

- | | | |
|------------|---------|--------------------|
| 1. edizioa | 7 euro | Milluts |
| 2. edizioa | 13 euro | Elutseta |
| 3. edizioa | 21 euro | Errotaberri |
| 4. edizioa | 16 euro | Sabordegi |
| 5. edizioa | 30 euro | Sabordegi |
| 6. edizioa | 8 euro | Antso |

Sagar tarta lehiaketa:

Hamalau tartagile aurkeztu ziren:

Irabazlea: Manoli Sorondo.

Bigarren: Susana Rodriguez.

Equberrietako saskia:

Irabazlea: Axun Izagirre.

Gaztaren kiniela:

Kantoiko gazta:

Pisua, 1.245 gramo.

Irabazlea. Mirian Carro (Hernani).

Guriako gazta:

Pisua, 1.435 gramo.

Irabazlea: J.Mari Arrieta (Hernani).



Arkupeetan eta kanpoaldean ikus daitekeenez festara jendetza hurbildu zen.



Giro ederrean ibili ziren San Tomas eguneko ospakizunera hurbildutakoak.



Talogileak eta pintxoan egileak lan eta lan aritu ziren arratsalde osoan zehar.



Lourdes Iriondo musika eskolako kideek giroa alaitu zuten.



Antso sagardotegia eta Manoli Sorondo tartagilea, azken edizioko irabazleak.



Axun Izagirrek saski ederra eramaneen etxera. Zorionak, eta on egin!



Argazki hauek eta gehiago ikusgai daude Aiurriren webgunean eta sare sozial ezagunean. Baita bideoa ere.

IÑISTORRA ELKARTEAREN ESKER ONA

- Arratsalde osoan laguntzaile izan genituen hogeita hamar herritarrei.
- Sagardogileei, tarta egileei, Lurdes Iriondo musika eskolako kideei.
- Epaimahaikide lanetan aritu zirenei, Muazpi harategiari, Kantoiei eta Guria tabernei.
- Urnietako Udalari.



URTARRILAREN 16AN, 17AN ETA 18AN IKUSKIZUNAREN ESTRENALDIA URNIETAN

Dantza, musika eta antzerki ikuskizuna Saroben

Ordubete inguruko saio honetan ez da aspertzeko betarik izango; antzerkia eta musika zuzenean izateaz gain, Gipuzkoako dantzak XXI. gizaldian girotuta taularatuko dituztelako.

Egape dantza taldeko neskak erronka berri baten aurrean daude, antzerkia, musika eta dantza nahastuko dituen ikuskizun berria prestatzen ari diren honetan.

Marizuloko kide eta ikuskizunaren ideia izan duen **Luis Mari Zalduak** dioenez, dantzariak erronka berriak behar dituzte, dantzarako duten mailari eutsi eta aurrera egiteko: “Dantzariak behar zuten erronka bat eta emanaldi honekin horretan ere saiatuko gara. Aitzakia horrekin, gainera, gu ere elkartu egiten gara”, azaldu du.

“Dantza munduan Edu Muruamendiaren oso pertsona berritzailea izan da”, gaineratu du Zalduak. “Gaur egun arruntak iruditzen zaizkigun hainbat gauza, Gipuzkoako dantza tradizionaleko pauso eta mugimenduetan oinarritutako aldaketa modernoak dira. Honela, dantza tradizionalei musika berriak eta koreografia berriak txertatzen aitzindari izan da Edu”. Dantzen modernizazioan aurrera egiten lagundu eta, beste behin, bere koreografiak erakutsiko dituzte Saroben.

IZTUETAREN BIZITZA OINARRI

Iztuetak Gipuzkoako dantzen kanona edo ereduia izango zen dantza bilketa bat egin zuen. Bilduma hori oso modu zurrunean ibiltzen omen da, gauza



Dantzariak: Edu Muruamendiaraz, Intza Cabrera, Irati Goikoetxea, Irantzu Iturbe, Janire Juanikorena, Karmele Lekuona, Uxue Manterola, Eider Manterola, Nahikari Sanchez, Garazi Usabiaga. **Dantzari txikiak:** Aitzol Otegi, Gariñe Serrano, Arixen Unanue, Gartzea Zaldua.

ukiezin bat bezala. “Iztuetaren bizitzari begiratuz gero, ordea, ikusten da bera ez zela inondik inora pertsona zurrun bat; guztiz libertarioa eta gauzak bere erara egitea gustatzen

zitzaiena baitzen. Alderaketa horretan paradoxa bat ikusten dugu argi eta garbi, eta hori da obraren abiapuntua”, dio Zalduak. Iztuetaren hitzetan oinarritutako emanaldia izango da,

Jon Unanue aktoreak esaten duena hitzez hitz, bere hitzak baitira. Hala ere, Iztuetaren “irakurketa libre bat” egin dute, beraien erara egina. Gainera, ikuskizun osoa biltzen duen eta gauzak bakoitzak bere moduan egin behar dituela dioen kantua ere badago emanaldian. “Guk ideia hori sostengatzen dugu. Egin ditza-gun gauzak, baina egin ditza-gun geure erara. Ez gaitezen artaldean doan beste ardi bat gehiago izan. Horregatik, berak egingo lukeen bezala, ikuskizuna gure erara osatu dugu”.

Iztuetaren bizitza oso betea izan zen eta horixe islatu nahi dute: “Dantzari oso fina zen, hiru aldiz ezkondu zen, espetxean egon zen urte dezentez, politikoki pertsona modernoa zen, idazlea ere bazen eta euskaraz idazten zuen...”. Oso bizitza oparoa eta interesgarria izan zuen Iztuetak, baina bere bizitza eta izaera ezagutarazteaz gain, garai hartako Gipuzkoa ere islatzen da emanaldian: “Ilustrazioaren garaia, Karlistada, eta Frantziako iraultzak dakarren berrikuntza erakusten dira obran, Iztuetaren bizitza testuinguru horretan kokatzen delako”.

IZTUETA



Juan Inazio Iztueta Etxeberria “Zuria” Zaldibiako idazle eta koreografoa 1767ko azaroaren 29an jaio zen, eta 1845eko abuztuaren 18an hil, 78 urte zituela. Beste lanbide askoren artean zerga-biltzaile eta gartzelako zuzendari izan zen.

Euskal dantzak galtzorian zeuden garaian berreskuratu egin zituen eta Donostian dantza-taldeak sortu zituen. Euskal dantzen berri emanez *‘Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia beren so-u zar eta itz-neurtu edo versoquin’* (1824) eta *‘Euskaldun anci-a anci-aco’* (1826) idatzi zituen.

SINOPSISIA

“Juan Ignazio Iztueta *Zuria* aldaketa garaian bizi izan zen; ilustrazioa, Frantsesadak eta Lehen Karlistada bertatik bertara ikusi zituen. Bizitza luze bezain betea izan zuen, ez baitzen geldi egoteko horietakoa: dantzari fina, hiru aldiz ezkondu zen, espetxean egon zen, hainbat lan idatzi zuen euskaraz...”

1824an egindako dantza-bildumarekin gertaturikoa paradoxa da: eskuliburu zurruntzat erabili da urte luzez, egileak beste ororen gainetik, gauzak bere erara egitea, aske izatea, lortu zuenean.

Egape dantza-taldeak, Anabasek eta Marizuloko zenbait kidek, Urrietako Udalaren babesarekin, *Zuriaren* izatea eta haren garaiko Gipuzkoa ezagut dezan erraztu nahi diogu ikusleari (izan dantza-zale edo ez), zaldibiarrek egingo zukeen bezala, gure erara”.



Musikariak: Julian Cobzaru (eskusoinua), Helena Soguska (biolina), Pedro Artetxe (perkusioa), Eneko Salaberria (baxua eta pianoa), Monika Redondo (biolina), Antton Jauregi (txistua, xirula, alboka) eta Xabier Ubillos (gitarra).



Hainbat: Jon Unanue (antzezlea), Enkarni Cuesta (jantziak), Luis Mari Zaldua (ideia nagusia), Jaione Jauregi (antolaketa eta koordinazioa), Pablo Lusarreta (argi eta soinu teknikaria) eta Mikel Agirregomezkorta (eszena zuzendaritza).

2015EKO UDAL AURREKONTUAK

Udal aurrekontuak onartu dituzte, ezusteko bozketan

Abenduaren 29an ez ohiko osoko bilkuran 2015eko Udal aurrekontu proposamena hizpide izan zen. Luze jo zuen eztabaidak, EAJ-PNV eta EH Bildu elkarri kritikak leporatuz. Aurrekontuak atzera bota-

ko zirela uste zenean, EH Bilduk abstentzioarekin aurrekontu proposamenari bidea eman zion. Plenoa bertatik bertara jarraitzen ari ziren guztiak ezustean harrapatu zituen abstentzioak.

Ez ohiko plenoak ez ohiko emaitza izan zuen. Batzar aretoan ziren denen ustearen aurka, EH Bilduk abstentzioarekin gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontu proposamenari irtenbidea eman zion. Bozketa egin orduko, **Mikel Pagola** alkatea, sinetsi ezinik, segundu batzuz EH Bildukoei begira geratu zen. Izan ere, aurreko laurogeita hamar minutuetan **Maribel Vaquero** eta **Xabier Yurramendi** EAJren eta EH Bilduren bozeramaileak ika-mika luzean aritu ziren, aurrekontuen negoziazioen inguruan elkarri kritikak leporatuz. Eta futbol partida bat balitz bezala, gobernu taldeak partidaren luzapenean aurrekontua aurrera ateratzea lortu zuen. Minutu gutxira alkateak berak Facebook-en poza adierazi zuen: “Urnietako Udalak 2015eko aurrekontuak onartu ditu. Zorionak Urnietari eta urnietarrei. Aurrekontuak onartu ostean erronka berriei ekiteko motibazioz bete”.

Albistearen berez ona da herriarentzat, aurtengorako milioi bat euro aurreikusi baitute herrian zehar hobekuntzak egin ahal izateko. Albistearen ordea, ez dago eztabaidaren osteko erabakian bakarrik. Eztabaidan bertan dago albistearen muina. Batzar aretoan entzundakoak entzunda, 2015ko diru kontuak nagusiki alderdi abertzaleen artean negoziatu zirela ondorioztatu zen. Negoziazioetan EAJ-PNV eta EH Bildu hainbat puntu adoste-



Ezkerretik eskuinera, PSE-EEko, EAJ-PNVko eta EH Bilduko hainbat udal ordezkari abenduaren 29ko batzaraldian.

ra iritsi ziren. Talka, ordea, zaborren gaian iritsi zen. Birziklapen tasa igotzeko prozeduran eten ziren negoziaketak. Hiru alderdiek agintaldiaren hasieran ezarritako %65eko birziklapen tasatik urrun dago Urnietak. Hogei puntu azpitik, %40a pasatxo. EH Bilduk neurri berriak hartzea proposatu zuen, eta hor eten ziren negoziaketak. Abenduaren 29a iritsi zen, eta gai horren inguruan adostasunik egon gabe Udal aurrekontua eztabaidatzen hasi ziren.

Hiru alderdiek arrazoiak azaltzeko bi txanda izan zituzten. Ziurrenik urteko azkena Udal batzaraldi luzeena izan zen. Alkateak gidatu zuen eztabaida eta alderdi bakoitzeko bozeramaileak, ohi bezala, PSE-EEko Herme Gonzalez, EH Bilduko Xabier Yurramendi eta EAJ-PNVko Maribel Vaquero izan ziren.

Alderdi sozialistak ezezkoa bozkatzeko lau arrazoi nagusi adierazi zituen: “lehenik orain artekoari jarraipena ematen diola iruditzen zaigulako, ideia berri gutxiarekin. Politikoei edo teknikariak egin ditzaketen lanak egiteko kanpoko kontratazioa gehiegi jotzen da. Bestalde, ez gaituzte gehiegi kontuan hartu, oso tarte txikia eskaini digutelako. Partida berriekin eta inbertsioen zerrendarekin ez gaude ados, guk beste lehentasun batzuk ditugu. Eta diru soberakinaren kudeaketa ere beste modu batera egingo genuke”.

EH Bilduk gobernu taldearekin hainbat puntu adostu zituztela adierazi zuen. Birziklapen tasak igotzeko, ordea, “neurri zuzentzaileak” hartzea proposatu zion EAJ-PNVri, “gobernu taldearekin neurriak adosten saiatu gara baina ezin izan da. Helburuetara iristeko benetako

aldaketak egin behar direla uste dugu”.

Eztabaidaren lehen itzulian amaitzeko jeltzaleen bozeramaileak bi alderdiei erantzun zion. PSE-EEri erantzun zion Urnietan egin beharreko eraldaketa handienak egiteko parte hartze prozesu bat jarri nahi dutela martxan, herritarrek ere erabaki handi horietan parte har dezaten, “parte hartze prozesu hori nola egin Udal ordezkariak adostu nahiko genuke”.

EH Bilduri “errefusaren tapa zenbat aldiz itxi, horixe da dugun desberdintasun bakarra. Eta garbi esanda, ez dugu ulertzen”. Negoziazioan ongizatean, kooperazioan, merkataritzan edota hirigintzan lortutako akordioak gogora ekartzearekin batera, aurrekontua onartu gabe akordio horiek guztiak bertan behera uzteko arriskuaz ohartarazi zuen.

BIDEOA



Udal aurrekontu proposamena
Eztabaida osoaren laburpena da, hiru alderdien parte hartzearekin.

Eztabaidaren bigarren txandaren ika-mika nagusia EAJ eta Bilduren artekoa izan zen. Yurramendik jeltzailei borondate falta leporatu zien, eta jeltzaileek hori gezurtatu nahi izan zuten.

Bozketan, ezustean, Udal aurrekontuak onartu ziren EH Bilduren abstentzioarekin.

SOKA IZAN DUEN GAIA

Urtarrileko lehen egunetan EH Bilduk bere jokabidea arrazoitu zuen herrian banatu zuen oharrean. “Erantzukizunez” jokatu zuela aditzera eman zuen, gobernu taldearen “arduragabeeria” salatuz.

EAJrentzat “botu aldaketa” egin zuen EH Bilduk, gezurrez beteriko panfleto bat banatzea helburu izango lukeena.

PSE-EEk aldiz, ohar bidez, bi alderdi abertzaleak kritikatu ditu: “EAJk nahi duena egiten du eta Bilduk, kritiko agertu arren, ia beti haien alde altxatzen du eskua”.

Azken plenoan zatiketa irudikatu zen alderdien artean, agintaldi osoko ildoarekin hautsiz.



Mundua motoz

Urtarrilak 14, asteazkena
19:00

Hizlaria:
Mikel Etxeberria



Urnietako Udala



GaztegunUrnietak



Idiazabal, 13 / behea
20130 Urnietak (Gipuzkoa)
Tel.: 943 333 973
gazteinformazioa@urnietak.org

ANDOAIN HERRI IZAERAREN LAUGARREN MENDEURRENA

Andoaingo historiaren aro ezberdinak erakusketan ikusgai

"Andoain lau mendetara" erakusketaren irekiera ofiziala burutu zen Basteroko erakustokian, joan den urtarrilaren 2an. 400. urteurrenaren ospakizunen karira dator erakusketa. Ana Carrere alkate-

ak eta Historian doktore den Susana Truchuelok hartu zuten hitza; azken honek "Andoain 1615: hiribildu berri baten historia" liburuxka aurkeztu zuen.



Andoaingo historia ikusleari ezagutarazteko asmoz, lau aro-tan banatzen da erakusketa: "Historiaurrea: lehenengo jendeguneak Andoaingo lau haizeteetan", "Erdiaroa: lau herrixka ahaide nagusien menpe" "Aro berria: herria eginez", eta azkenik, "Aro garaikidea, Andoain eta Sorabilla: elkarrekin etorkizunari begira". Argazkiez, agiriez, liburu historikoez, planoek edota testuez hornitzen da erakusketa; horiez gain, Andoaingo eraikuntza ezagunak oinarri hartuta **Adela Ruiz de Larrinagak** egindako maketak eta **Xabier Arrutik** utzitako trenbidearekin lotutako zenbait objektu ikusgai jarri dira bertan.

Erakusketa astelehenetik ostiralera zabalik egongo da 18:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan 10:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:30era.

Ana Carrere alkateak erakusketak eta liburuxkak daukaten balioa azpimarratu zuen, An-



Maketak, panelak, ikusentzunezkoak..., erakusketa ikusgarria da. Otsailaren 15era bitarte zabalik izango da.

"Andoaindarroiondodator-kigu jakitea iraganean zer izan ginen eta nola iritsi garen gaurko egunera"

Ana Carrere, alkatea

doaingo herritarrek bere herriaren historia ezagut dezaten. "Maiz, geure historia ahaztu edo kaxoi batean gordetzen dugun arren, ondo da-

torkigu jakitea zer izan ginen eta nola iritsi garen gaurko egunera... Biztanleek ez ezik, kaleek eta eraikuntzek ere Andoaingo herria historian kokatzen laguntzen digute".

Susana Truchuelok labur-labur aurkeztu zuen liburuxka. Zer den definitu nahi izan zuen, lehenengo eta behin: "txikia, sintetikoa eta andoaindar guztiei zezendutakoa da. 1615ean gertakizun historiko

"1615ean gertakizun historiko oso garrantzitsua gertatu zen Andoainen, bere etorkizuna markatu zuena"

Susana Truchuelo, idazlea

oso garrantzitsua gertatu zen Andoainen, bere etorkizuna markatu zuena, herri bilakatu zuena eta erabakiak bere kabuz hartzeko aukera eman zio-

ERAKUSKETA

Bastero, erakusketa gela

Otsailaren 15era bitarte zabalik. Lau ataletan banatuta dago:

- **"Historiaurrea:** lehenengo jendeguneak Andoaingo lau haizeteetan".
- **"Erdiaroa:** lau herrixka ahaide nagusien menpe".
- **"Aro berria:** herria eginez".
- **"Aro garaikidea, Andoain eta Sorabilla:** elkarrekin etorkizunari begira".

na, eta hori dena jakingarria dela iruditzen zait".

1615eko mugarri historiko horretara iristeko Andoainek bizi izan zuen prozesua, urrats ez betea, kontatzen da: "Donostiarekin bat egitea lehenbizi eta harengandik aldentzea ondoren, Tolosarekin bat egitea, Gorteko erregeak Andoaini hirriaren titulua ematea, hortik aurrera Gipuzkoako Batzar Nagusietan tokia hartzea... Prozesu horren zergatiak, edo eta, bien bitartean andoaindarrek eta tolosarrek zer nolako ikuspegia zeukaten, aspektu horiek guztiak biltzen dira". Liburuxka 3 eurotan jarri da salgai, eta erakusketa gelan eros daiteke, ospakizunarekin lotutako gainerako materiala bezala.



Xabier Arruti herritarra Karlistaden garalko jantziak dauden gunean.



Adela Ruiz de Larrinaga herrikidearen Andoaingo eraikinen maketak ikus daitezke erakusketan.

Bilboko manifestaziora joateko deia egin du Sarek



Andoaingo ekimenaren bideoa ikusgai dago aiurri.com webgunean.

Larunbat honetan nazio mailako manifestazioa burutuko da Bilboko kaleetan, eta ekitaldi horri lotuta Andoainen urtarrilaren 3an Sare ekimenak ekitaldia antolatu zuen Espigoian. Deialdian honako adierazpena egin zuten: "Andoaingar gehienok argi dugu: Dispersioarekin bukatzea beharrezkoa eta posiblea da. Eta honetarako guztion ekar-

pena txikia ala handia izan, ezinbestekoa da sufrimendua ezabatzeko eta konfrontazioarekin amaitzeko, oinarri sendoak ezarri eta esperantzari, baita konponbideari ere leiho bat irekitzeko. Batu ditzagun arrazoiak, bihotzak, eskuak eta borandateak mezu argi hau lau haizeetara zabaltzeko: Now, orain Euskal Herrira".

Ama Kandida etorbidearen errepidea, Udalaren esku



Larraitx Ugarte foru diputatua eta Ana Carrere alkatea.

Andoain eta Urnieta arteko Ama Kandida kalearen zati bat Andoaingo Udalaren esku utzi du Foru Aldundiak. Larraitx Ugarte mugikortasun eta azpiegituretako foru diputatua eta Ana Carrere alkatea bildu ziren abenduaren 18an hitzarmena sinatzeko. Aurrerantzean, GI-3722 errepidearen hasierako 900 metroen jabetza Andoaingo Udalarera izango da.

Eskualdatze hau "guztiz logiko" ikusi dute bi aldeek. Izan ere, errepide zati hori erabilera urbanokoa dela eta herri arteko errepide gisa erabiltzen ez denez, ardura Udalarera izan behar duela adierazi dute. Hori horrela, jabetzarekin batera, 405.627€ eman dizkio Aldundiak Udalari, errepidea egoera onean egon dadin obrak egiteko: "Aldundiak bi modutan egin zezakeen eskualdatzea, errepidea konpondu eta bere horretan

emanda Udalari, edota dagoen bezala eman eta egokitzeak izango duen kostuarekin batera. Bigarren aukera egokiagoa ikusi dugu", azaldu zuen Ugartek.

Aipatu errepide honek ibilgailuen eta oinezkoen segurtasunari lotutako arazoak ditu: "Ama Kandida geroz eta urbanogoa da eta arazo handiak daude kotxeen abiadurekin. Akordio honen bidez soluziobideak topatuko ditugu", azpimarratu zuen Andoaingo alkateak. Kale inguruan bizi direnentzako eta bertatik pasatzen direnentzako bizi kalitate hobea eskaini nahi dute. Horretarako, abiadura mantsotzeko obrak egiteaz gain, zorua egokituko dute. "Trafiko handia duen kalea da, eta bada garaia inguruko bizi kalitatea hobetzeko erabakiak hartzeko; batez ere, Bazkardo inguruko biztanleentzat".

Urtarrilaren 14tik 22ra sei bilera deituko ditu Andoaingo Udalak

Parte hartze prozesua berria, auzoz auzo

2012. urte amaieran, partaidetza prozesu baten bidez arlo ezberdinei lotutako lehentasunak ezarri zituzten herritarrek. Udalak, ondoren, hainbat konpromezu hartu zituen: "Orain, lege-gintzaldia amaitzeaz dagoen honetan, prozesu hori itxi egin behar dela iruditzen zaigu", azaldu du alkateak. Horretarako, azalpenak emango dituzte auzoz auzo.

Horrez gain, bilera hauek andoaindarrak informatzeko ere baliatuko dituzte: "Bilera hauek aprobetxatuko ditugu herritarrek informatzeko eta Udalaren egoera ekonomikoaz ere hitz egiteko".

Duela bi urte egindako prozesua oso jendetsua izan zen. Guztira, 300 lagun inguruk eman zuten beraien iritzia; eta oraingoak ere arrakasta izatea



Aurreko prozesuan Sorabillan egin zuten bilerako argazkia.

espero dute. Nola ez, oraingotan ere Andoaingo Udalak herritarrei bileretara joateko deia luzatu die.

HITZORDUAK:

Goiburur - Buruntza - Leizotz

Urtarrilak 14, 18:30. Udaletxean.

Bazkardo - Kaletxiki - Geltoki - Alejandro Kalonge

Urtarrilak 15, 18:30. Berrozpen.

Goiko Gunea - La Salle - Plazaola

Urtarrilak 19, 18:30. Uriginen.

Karrika - Etxeberrieta

Urtarrilak 20, 18:30. Karrika elkartean.

Sorabilla - Borda Berri

Urtarrilak 21, 18:30. Sorabillako auzo elkartean.

Zumea - Erdigunea - Olagain

Urtarrilak 22, 18:30. Basteron.

Leizaran institutua, munduko gastronomiaren topagunea

Kulturartekotasuna ospatu zuten ikastetxean



Hafsa Jdirak eta Silvia Agbontaenek Marokoko eta Nigeriako elikagaiak ekarri zituzten. Josebe Amondarain eta Josune Iñarra irakasleek gidatzen dute kulturartekotasunaren programa.

Munduko hogei bat herrialdeetan jatorria duten ikasleak ikasten ari dira institutuan; Kulturartekotasunaren jaietan urteko azken ikas-egunean beren herrialdeetan berezkoak diren jakiak ikastetxera eramaten dituzte, etxean egin eta gero.

Institutuko ikasleak, irakasleak, langileak eta gurasoak nahiz herritarrak bertaratzen ziren ekimenetara, festa polita ospatuz. Ospakizuna kulturartekotasunaren programaren baitan sartzen da, eta Josebe

Amondarain eta Josune Iñarra irakasleak dira bere arduradunak. "Batuetan ikasle horiei beren jatorria azaltzeko lotsa modukoa somatzen zaie. Ekin-tza honen bidez, transmititu nahi da denok elkarrekin bizi behar dugula mundu honetan, eta harro sentitu behar garela geure jaioterriko hizkuntza, kultura, ohiturak edo gastronomiarekin".

Euskara eta euskal kultura ezagutzeko pausoak ere ematen dituzte Leizaran ikastetxean, kulturartekotasunaren pro-

gramarekin, "izan zaitezte ongi etorriak Euskal Herrira, horixe adierazi nahi zaie programa honekin. Euren zaintzeaz gain, bertakoa ere euren egin behar dute. Bada, mezu hori zabaltzeko, ekimen ugari burutzen dugu ikasturtean zehar. Azkenekoa, adibidez, Pirritx, Porrotx eta Marimotots paila-soekin abesti bat Garate estudioan grabatzea izan da. Ikasleek Maite zaitut abestia zortzi hizkuntzatan abesteko aukera eduki zuten. Ikaragarri ondo pasa zuten".

HERRIKO GIZARTE MUGIMENDUEN PLATAFORMAREN DEIALDIA, GIZARTE ETA KULTUR TALDE ETA ERAGILEEI ZUZENDUA

Gizarte eragileen deialdi berria urtarrilaren 14rako

Bigarren batzarrerako deia luzatu du Andoainen hainbat gizarte eragile biltzen dituen plataformak. Urigain Kultur Etxean, urtarrilaren 14rako (asteazkena) jarri du hitzordua. Gonbidapena herriko

kultur eta gizarte mugimendu guztiei zein norbanakoei egin die; bere ustez, guztiek elkarturik errazago egingo die aurre krisia eraginduen sistema ekonomiko-politikoari.

Plataforma honako Andoaingo taldeek jarri zuten abian iaz: **Ernai, Kaleratzeak Stop, Duintasuna, Eguzki, TOPA** Osasun Publikoaren Alde, **Belabietia, EGFH** eta **Activate**. Andoaingo talde zein gizabanakoak elkar ezagutzeko, antolatzeko eta gizarte eredu kapitalistari modu kolektiboan eta herri mailan erantzuteko jaio zen plataforma, eta udazkenean lehen herri batzarra ospatu zuten, Juanita Alkain plazan. Sistema kapitalistak ezarritako eredu ekonomikoa eta soziala jo zuten egun bizi dugun egoera mukuraren iturburutzat. "Gaitasun kritiko eta klase kontzientziarik gabeko gizarte handi bat sortu izana" leporatu zioten sistema horri.

Sortu berria da plataforma, eta bere kideek denbora hartu behar izan dute mamitzen joateko, baina zenbait ekimen burutu dute jada herriari begira. Urteko azken Udak batzarrean mozioa aurkeztu zuten Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (RGI) inguruan, PSE-EE eta Bilduren botoekin aurrera atera zena. Bi bilkura ere antolatu izan dituzte, abenduaren 31n azkena, pobrezia eta baztertze sozialaren aurka.

ERAGILEAK BILTZEKO ASMOZ

Herriko mugimenduen bilgune izateko eta elkarrekin ekimenak antolatzeko helburuarekin



Iker Iriondo, Iñigo Ibañez, Alejandro Mercado, Toñi Abello eta Jorge Mourinho plataformako kideak.

antolatu dute bigarren biltzarrak urtarrilaren 14rako. **Jorge Mourinho** plataformako kideak adierazi duenez, "guztiz irekia da plataforma, eta eragile berriak bertaratzea nahi genuke. Ikusten dugu Andoainen elkarrengatik ari dela lanean nor bere aldetik. Oso kritikoak dira egungo errealtatearekin, eta argi daukate sistema kapitalistan datzala arazoaren sorburua. Nolanahi ere, nork bere problematikari bakarka egiten dio aurre, izan hezkuntzan, izan arlo sozialean, izan osasungintzan, izan lan munduan... Erabateko arrazoia edukitzea dute, baina gehienetan ez dute

nahiko luketen oihartzuna edukitzea Andoaingo gizartean. Iruditzen zaigu indarrak batu genitzaizkeela oinarritzeko planteamendu batzuk adostuta, eta hortik aurrera aho batez funtziona genezakeela hainbat esparrutan".

Plataformaren filosofia eta helburuak azaltzeko asmoz, Andoaingo eragileekin biltzen ari dira azken asteetan. Eran-tzunak baikorrak izaten ari direla onartu dute guztiek ere, eta horietako asko batzarrera agertzea espero dute.

ZABALDU BEHARREKO MEZUA

Plataforma osatzen duten kide

guztiek garbi daukate euren ikuspegiekin bat egiten duela Andoaingo biztanlegoaren zati handi batek; baina halaber, eskarmentuak adierazten die gauza korapilatu egiten dela konpromiso maila areagotzeko pausoa ematera eskatzen zaie-nean. **Toñi Abellok** uste hori baieztatzen du: "sinadura bilketak antolatu izan direnean berdintasuna eta justizia eskatzeko edo eta ingurugiroaren aurkako egitasmoren bat salatzeko, andoaindarrak oso eskuzabal agertu izan dira; elkartasunaren arloan sentiberak direla erakusten dute. Baina hori bai, keinu horretatik pau-

BILERA IREKIA

Urtarrilak 14, asteazkena.
18:00. Urigain.

so bat haratago emateko eskatzen zaie, izugarri kostatzen zaie mugitzea".

Nagitasuna ez ezik, gizartean zenbait uste oker ere nagusi direla uste du Toñik. "Etxean geratu behar dugula esan zaigu, ez duela injustiziek inaxinatzea merezi. Ia-ia sinetsita gaude egunero ezartzen dizkiguten murrizketak, ez dutela zerikusirik geure eskubideekin. Txirotasunak familia bisitatzen duenean, adibidez, errua geurea dela iruditzen zaigu; horixe lortu dute. Gizabanakoaren arazotzat hartzen dira sistema ekonomikoak sortutakoak; ikuspegi kolektiboa falta zaigu errealtatea bere neurrian aztertzea".

Euskadiko biztanleen jarre-rak, oro har, gogoeta berezia eskatzen duela ere adierazi du Toñi Abellok. "Estatuko beste autonomiak baino aberatsagoa dela, eta krisia guregana ez dela inoiz iritsiko. Bada, oker gaude, iritsi baita; ingurura begiratu eta errealtate pertsonalei begiratzea besterik ez dago, langabezia zenbatek jasaten duen ikusteko, lan baldintza kaskarrak, pobrezia energetikoa...".



Pobrezia eta baztertze sozialaren aurka Herri Plataformak abenduaren 31n antolatu zuen bilkura.



Gizarte elkarten Lehen Herri Batzarra Juanita Alkain Plazan egin zen, lazko azaroaren 1ean.

EGUBERRIAK 2014

Nagore Antonen Gabon postala ezagun egin da



Nagore Anton, jatorrizko marrazkia eta harekin egindako postala eskuetan.

Nagore Anton Muñoz Andoaingo gaztetxoak egindako postala etxez etxe eta eskuz esku ibili da Gabonetan. Izan ere, berak egindako marrazkia hautatu du Gipuzkoako Etxe Erregionalen Federazioak; marrazkia postalera eraman du bazkide, lagun eta inguruko artean banatzeko. Milaka pertsonak erabili dute postal hori adiskideei Eguberri eta Urteberri ona desiatzeko.

Postala argitaratu duen federazioa, Galizia, Extremadura, Andaluzia, Errioxa eta beste hainbat komunitateen kultura sustatzeko asmoz Gipuzkoan diren elkarten bilgunea da.

"Oparien astoa" du izenburutzat postalak, eta bertan, Belengo estalpera etorri den opariez zamatutako astoa ageri da; estalpean diren bi baserritarrak poztu egin dira astoa ikustean.

Ezustean harrapatu du postalaren inguruko oihartzunak Nagore Anton, eta ez dago zalantzarik aparteko Eguberriak izan direla berarentzat.

Triana elkartearen dantzari txikiko (Las Violetas) dantzaria da, eta bertan egiten diren ekitaldi guztietan parte hartzen du. Urriko herrien arteko jaien baitan, marrazki eta ipuinen lehiaketak antolatu ziren, eta bera marrazkirako aurkeztu zen; "Gabonak izan zen jarri ziguten

gaia, eta hasi eta ordu erdi batean bukatu nuen. Txiripa izan zen guztia. Izan ere, bihurrikeriaren bat egin nuen arratsalde hartan, eta horregatik amak ez zidan utzi nahi lehiaketan parte hartzen, zigor modura. Hala ere, ama beti ez da hitzekoa izaten, eta horri esker, azkenean, utzi egin zidan parte hartzen".

Nagorek eta Andoaingo gainerako partaideek egindako marrazki eta ipuinak Gipuzkoako lehiaketan sartu zituzten, epaimahai baten esku utziz azken erabakia. Horiek, Gipuzkoako Federazioak Andoainen Triana elkartearen egoitzan egin zuen bileran eman ziren jakitera. Sariak abenduaren 14an banatu ziren Donostian, eta bertan Nagorek domina, kopa, eta batez ere, bere marrazkia postalean ikusteko oparia jaso zituen.

Nagorek 9 urte ditu, Bazkardo auzoan bizi da eta La Salle-Berrozpe ikastetxeko ikaslea da. Eskulanak izan ditugu gogoko txiki-txikitik, marrazketa batez ere. Noiznahi eta nonnahi hasten da marrazten; margoak eta papera, nahikoa ditu horretarako.

Ikastetxeak eskolaz kanpo antolatzen duen marrazketa ikastarora joateko ere, ez du gurasoen animoen premiarik behar izaten.

EGUBERRIAK IRUDI BIDEZ



Olentzero eta Mari Domingi abenduaren 23an iritsi ziren Urnietara. Ikusmin handia piztu zuten.



Olentzero eta Mari Domingiri harrera egiteko eskaini zuten musikariek eta dantzariak saio polita.



Abenduaren 23an jendetza bildu zen San Juan plazan, Olentzero eta Mari Domingiri besarkada eman eta gutuna banatzeko.



Baltasar erregea izan zen Erratzuko zubia zeharkatzen azkena.



Urteari hasiera eman zioten Adarran, Urnietako eta Andoaingo goiztiar askok. Ohi bezala, Euskaldunako Isabel Santa Cruz eta Alejandro Gonzalez salda banatzen aritu ziren.



Baltasar erregea Andoaingo kaleetan barrena.



Erregeek ikusmin handia pizten dute Andoainen.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

EGUBERRIAK 2014

EGUBERRIAK IRUDI BIDEZ



La Salle-Berrozpe ikastetxeko ikasleak Gabon eskean.



Aita Larramendi ikastolako ikasleak Gabon eskean.



Ondarreta ikastetxeko ikasleak Gabon eskean.



Bon Nadal Kataluniako ohitura Kale Nagusian, Keinu dendaren parean.



Olentzero eta Mari Domingi Leitzarandik barrena iritsi ziren.



Presoen aldeko taldeak kalejira egin zuen herrian barrena.



Andoain Bizi! kanpainaren eskutik artisautza azoka antolatu zuten.



Urki dantza taldeak erromeria egin zuen abenduaren 27an.



Bertsolariak eta trikitilariak tabernaz taberna ibili ziren.



Andoaingo eta Tolosako dultzaineroak kalejiran.



Pajeek Errege magoen gutunak jaso eta goxokiak banatu zituzten.



Txistulari taldeak kalejira egin zuen herrian barrena.

Eguberriak 2014 | Argazkiak eta bideoak ikusgai





HERRI LASTERKETA URNIETAN

Urtezaharreko lasterketaren bigarren edizioa ere bikaina

Ia berrehun partaide izan zituen San Silbestre lasterketaren bigarren edizioak, tartean gazte eta emakumezko ugari. Jai giroan lasterka egitea aukera egokitzen hartu zuten askok, beraz, Urnietan.

Proba herrikoia da oso, errepidean eta bazterretan herrikide asko biltzen dituen. Bide luzea izan dezala San Silbestreak! Aurten, gainera, lasterketak helburu solidarioa izan du.



Taldeka eta bakarka lasterketaz gozatzen berrehun lagun animatu zen Urnietan.



Ikusleek txalo artean jaso zituzten hotzari aurre egin zioten lasterkari guztiak.



Mutiletan, bigarren San Silbestrearen sailkapena:
1. Asier Goikoetxea. 2. Mikel Legarreta. 3. Igor Amantegi.



Emakumezkoetan, bigarren San Silbestrearen sailkapena:
1. Leire Larrañaga. 2. Elena Santerbas. 3. Ainhoa Jauregi.



Poxta Zahar taldekoek Super H taldeari eman zioten lasterketan jasotako dirua. Hauek Donostiako ospitalera bideratuko dute.



Super H taldekoak haurren gidari lanetan aritu ziren San Juan plaza-ri eman beharreko bi itzulietan.



Joseba Unanuek jaso zuen moztorro onenaren saria. Lasterka dotore egiten du, baita moztorrotu ere.



Jon Gorospe eta Andoni Urbistondo urnietarrak beste askoren artean nagia alde batera utzi eta lasterka ibili ziren.

Lasterketaren izen-ematean jasotako diru guztia Super H taldeari eman zioten. Hauek nagusiki minbizia duten haurren

alde lanean ari dira eta proban bertan lasterkariei eskerrak emateaz gain, bildutako dirua Donostiako ospitalera bideratu-

ko dela adierazi zuten. Eskertzekoa, beraz, Poxta Zahar gazte koadrilen eta Zanpatuz mendiko elkartearen keinua. Lasterke-

ta burutu ahal izateko, gainera, herriko hainbat merkatariren laguntza jaso zuten. Antolatzaileek babesle guztiei ere eske-

rrak eman nahi dizkie. Proba-aren argazki ugari eta bideoa ikusgai daude Aiurrik internet sarean dituen ohiko guneetan.



ESKUBALOIA

Eskubaloi txapelketak Urnietan eta Andoainen

Abenduaren 27an Urnietako kiroldegian Eguberrietako VII. Eskubaloi txapelketa jokatu zen. Nabarmenezkoa, senior mailako partida.



Senior mailako partidaren Urnieta eta Uhartea elkarren aurka aritu ziren.

Urnietako KE-k antolatua, 200 neska-mutil baino gehiago bildu zen Eguberrietako txapelketan. Etxeko taldeez gain, Gipuzkoako ordezkariak zabala: Bera Bera, Hernani, Zarautz, Saieko, Egia, Ordizia, Leizaran eta Uhartea.

Infantiletan, nesken mailan, txapela etxean geratu zen. Urnietako A taldeak Urnietako B tal-

dea garaitu zuen finalean. Taldeak dioenez, biek ere txapelketa bikaina burutu zuten. Mutiletan Leizaran taldea nagusitu zen. Kadeteetan, Euskal Ligan aritzen den Zarautzeko talde nagusitu zen. Nesketan, berriz, Ordizia.

Txapelketari amaiera polita eman zioten senior mailako mutilek. Alde batetik, Urnietako Ba-

urtarrilaren 3an, bestalde, Allurralde kiroldegian Leizaran eskubaloi taldeak XIV. Errege Eskubaloi txapelketa antolatu zuen, parte hartze handiarekin.



Urnietan gizonezkoak eta emakumezkoak lehiatu ziren.

lerdi harategia. Eta bestetik Uharteko senior mailako taldea. Partida ikusteko kiroldegia lepo bete zen. Urnietarrek sekulako ahalegina egin zuten bigarren nazional mailan aritzen den Uharteko taldea garaitzeko. Urnietarrek amaiera arte borrokatu zuten. Aurkari sendoa zen, baina alboan zituzten zaletuak eta haien indarrarekin partida ore-

katzen ahalegindu ziren. Atsedenaldira 17-ko berdinketarekin iritsi ziren. Azkeneko luzapena eta guzti jokatu behar izan zuten! Orduan talde bakoitzak hiruna penalti jaurti zituen. Urnietarrek bakarrik huts egin zuten, nafarrek ordea hirurak sartu zituzten. Partida galdu arren, zaletuen txalo zaparrada jaso zuten.



Izaskun Olasagasti taldekideari omenaldia egin zioten Leizaran taldeko kideek.

Andoainen ere Eguberrietako txapelketak zapora gozoa utzi du antolatzaileen artean. Leizaran EKKko arduradunek adierazi bezala, "oso gustura gelditu gara egunaren nondik norakoarekin, txapelketa polit bat

ikusita baita eta gainera harmaitara jende dezente gerturatu delako". XIV. Errege Eskubaloi txapelketa amaitu eta gero, klubak eskerrak eman zizkien txapelketara hurbildu ziren zale-tuei, Udalari, babesleei, elkarte-



Kadete mailako taldea txapelketan jauna eta jabe izan zen.

ei, Gurutze gorriari eta hainbat laguntzailerari.

Txapelketari dagokionez, infantil mailan Urdaibaik etxeko taldea garaitu zuen finalean. Kadeteetan Leizaran nagusitu zen eta jubeniletan Baztan tal-

dea. Senior mailan partida bakarra jokatu zen Leizaran eta Baztan taldeen artean. Etxeko taldea izan zen garailea, markagailuan 20-12koa ezarri.

Andoaingo taldeek laster ekingo diote berrirori ligari.

Urnietako Leizako ibilaldia



Zarpatur mendi elkartea abian da. Abenduaren 26ko aurkezpen ekitaldian 180 lagun pasa elkartu ziren Saroben, eta han agindutakoa betez, elkarteko kideek lehen irteera antolatu dute: Urnietako Leizako ibilaldia.

Urtarrilaren 25ean izango da, igandearekin. 6-7 orduko ibilbidea osatu ostean, asmoa Leizako bertan bazkaltea da, bertan Inauteriak ospatzen direla aprobetxatuz eta giro polita egongo delakoan. Izena emateko zerrendak Xauxar, Kantoia, Amalur eta Ikasmin ikasketaren zentruen jarriko dira, eta izen-ematearekin batera, bazkariko diru saria ordaindu beharko da, 25 euro, jabetzeko lekua gordetzeko. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 23a izango da.

Autobusean bueltatzeko aukera eskainiko da, eta bazkariko izen-ematearekin batera apuntatu eta jende kopuruaren arabera zehaztuko da ordaindu beharreko kopurua egunean bertan. Irteera ordua 6:30etan izango da, eta Adarra eta Mandoegi igo ostean, Leizalarratek Leizako raino bidea egingo da. Leizako bertan dutxa bat hartzeko aukera ere egongo da (4 euro). Aldatzeko arropa eramanez nahi duenak motxila bezperan Ikasmin ikasketaren zentroan (Etxeberri plaza) uzteko aukera izango du (11:00-13:00). Itzulera 19:00ak aldera izango litzateke.

Euskalduna taldea

EUSKALDUNA MT
Urtarrilak 11, igandea.

Sara-Hiruiturrieta lepoa-Olheta zeharkaldia.

Irteerak:

07:30 Andoain Laborala

07:45 Donostia H. Amara.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Berezia

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritz

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne
Olano, Joxeba Lizeaga
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu

txikia:
diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea,

banaketa
arduraduna:
Garbiñe
Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzzaileak:

Mikel Arregi
(Andoain), Garazi
Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

URTARRILAREN 8TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

■ “Dios mio ¿pero que hemos hecho?”

19:30, 22:00. Urtarrilak 10.
19:30. Urtarrilak 11.

19:30, 22:00. Urtarrilak 12.

■ “Magia, a la luz de la luna”
Urtarrilak 17, 18 eta 19.

■ Haurrentzat: “Niko 2”

Urtarrilak 10 eta 11. 17:00.

Urnietan, Sarobe

■ “Hermes Celestine”

Ernest basoan bizi den hartz handi bat da, musika-ria ogibidez.
16:00, 18:30. 4 euro.
Urtarrilak 11, igandea.

Musika

Andoain, Bastero

■ **Gospel kontzertua**, The Sey Sisters. Hiru ahots beltz, Albert Bartolome piano-jotzaile eta saxofoi-jotzailearekin batera.
20:00. 12 euro.
Urtarrilak 24, larunbata.

Inauteriak

Andoain, Urigain

■ Inauteriak antolatzen hasteko bilera.
Udalak 400. urteurrenari garrantzia eman nahiko lioke.
19:00. Bilera orokorra.
Urtarrilak 13, asteartea.

Ikuskizunak

Urnietan, Sarobe

■ “Zuria, gure erara”

Egape dantza taldeko kideen ikuskizuna, Anabasa musika taldearen eta Jon Unanue aktorearen parte hartzearekin.
Urtarrilak 16, 17 eta 18.

Andoain, Bastero

■ “Barbantxo”, haurrentzat.
17:00. 4 euro.
Urtarrilak 18, igandea.

Aisialdia

Andoain

■ **Gozogintza tailerra** haur eta gurasoentzat, Celia Parraren eskutik. Andoaingo Mintzalaguna eta Gurasolaguna egitasmoen eskutik.
17:30. Ongi Etorri elkarte.
Urtarrilak 9, ostirala.

Antzerkia

Andoain, Bastero

■ **Pankreas**, antzerkia euskaraz. Mikel Martínez, Patxo Telleria eta Joseba Apaolaza aktoreen parte hartzearekin.
21:30. 12 euro.
Urtarrilak 9, ostirala.
■ **Juana, la reina que no quiso reinar**, Histrion konpainiaren eskutik.
21:30. 15 euro.
Urtarrilak 16, ostirala.

Mendeurrena

Andoain

■ **Hitzaldia:**

Historian doktorea den M^a Rosa Ayerbe Iribarrek 1615ean Andoaingo desanexioak suposatu zituen herri zein lurralde mailako aldaketak azalduko ditu bere hitzaldian.
19:00. Bastero. Doan.
Urtarrilak 14, asteazkena.

■ **Hitzaldia:**

Historian doktorea den Jose Antonio Rodriguez Ranz andoaindarrak hitzaldia eskainiko du egungo Andoain ulertzeko gakoengatik: “Andoain garaikidea. Hamar hitz, hamar zenbaki”.
19:00. Bastero. Doan.
Urtarrilak 21, asteazkena.

■ **Herri Antzerkia:**

Katramila antzerki taldea, Udal musika eskola, Maizorri txalapartari taldea, Olagain txistulariak, Ikastolako trikitilariak, Poto bertso eskola, Urki dantza taldea, Mikel Moreno musikaria, eta hainbat herritarren ahots eta irudia.
12:00. Bastero. 5 euro.
Otsailak 1, igandea.

■ **Erakusketa:**

Andoaingo historiari errepasoa lau aro ezberdinetan. Panelak, maketak eta garai bateko tresneria ikusgai.
Bastero, erakusketa gela.
Otsailaren 15era bitarte.

ZORION AGURRAK


ZORIONAK



Zorionak **Oier**, 7 urte iada!! Ondo ospatu eta hola-xe segi urte askotan. Muxu potoloak Enara, amatxo, aita eta familiakoekin partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Arane etxeko printzesak 2 urte bete zituen hilaren 2an. Muxu potolo bat. Aita, ama, Kimetz, Aratz eta amona txabelen partetik. Maite zaitugu.

URNIETA

ZORIONAK



Milla zorion etxeko printzesari! Abenduaren 30ean 16 urte bete zituen. Beti bezain irribarretsu jarrai deza-zula **Nerewi**. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Urtarrilaren 13an **Maitane** 32 urte beteko ditu eta 16an **Aimarre** urteko bat. Zorionak bioi eta muxu potolo bat! Amakoren kua-drila.

ANDOAIN


ONGI ETORRI



Aroa abenduaren 25ean jaio zen. Zorionak Aitor eta Iratxe. Muxu handi bat. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Intza etxeko printzesak abenduaren 26an 3 urte bete zituen. Muxu potoloa, etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Eukene Ariztimuño Balentziagak, 5 urte beteko ditu urtarrilaren 10ean. Malen, aita eta ama.

ANDOAIN

ZORIONAK



Julen urtarrilaren 15ean 7 urte beteko ditu. Ondo pasa zure egunean! Etxekoak.

ANDOAIN

URzabal plataforma berria

Udal hauteskunderi begira, datorren astean herritar talde batek Urnietan “URzabal Urnietarren plataforma” aurkeztuko dute jendaurre-

an. Ekitaldia irekia izango da, urnietar guztiei zuzendua.

Urtarrilak 15, osteguna. 19:00. Lekaino.

“Martxoak 8 emakume”

“Martxoak 8 emakume, pausoz pauso” 2015eko edizioa antolatzen hasteko bilera deitu dute datorren astera. Antolatzaileek parte hartzeko deia egin dute: “Gure-

tzat partaidetza garrantzitsua denez, bertan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu”.

Urtarrilak 14, asteazkena. 19:00. Urigain.

Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuretzat?

Ikuspuntu asko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena, lagunarena, lagunaren lagunarena. Zure ideia, produktu, zaletasun eta gustuentzat erreferentzia puntua. Nor garen eta nondik gatozen jakiteko abiapuntua. Guk bezala hitz egiten dutenekin kontaktu puntua. Interneten bereizten gaituen puntua. Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua. Gure komunitatearentzat, kulturarentzat eta zuretzat puntu eta jarraia izango dena. Anima zaitetz eta sortu zure .eus domeinu-izena. Informazio gehiago www.domeinuak.eus webgunean

Hemen duzu zure puntu berria

eus
gure domeinua